

## **HERNANIKO UDALEKO OSOKO BILKURARI**

Kooperazio taldeak herriko beste hainbat talderen atxikipenekin (Amher SOS Arrazakeria, Kaleratzeak Stop, Urrunegi, Berdintasun Kontseilua, Bilgune Feminista, CCOO, LAB eta ELA sindikatuak) MOZIO hau aurkezten dute, jarraian azalduta datozen arrazoietan oinarrituta, osoko bilkuran aztertuta eta, hala badagokio, onartuta izan dadin. Mozioaren gaia da Hernani Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoaren (TTIP) aurkako udalerrri izendatzea.

### **ARRAZOIEN AZALPENA**

Europako Batzordeak 2013an agindu hau jaso zuen Europar Batasuneko (EB) kide diren estatuengandik: ingelesezko siglak erabiliz TTIP izenaz ezagutzen den Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoa Estatu Batuekin (AEB) negoziatzekoa, ustez EBren eta AEBren arteko merkataritza areagotzeko asmoz, berez nahiko murriztuak dauden muga zergen hesia murriztuz eta, muga zergez harago, eta batik bat, muga zergak ez direnak ere bai, enplegu sorkuntza, ekonomiaren hazkundea eta konpetitibitatearen hobekuntza helburutzat hartuta.

Orduz geroztik, EB eta AEB negoziaketetan dabilta, merkataritza eta inbertsioak liberalizatzeko akordio zabal baten bila, tartean gardentasun gabezia eta herritarren nahiz beren ordezkari politikoen (herrialdeetako zein Europako parlamentuetakoena) kontrol gabezia onartezina dagoela. Horrek arrisku bizian jartzen ditu demokrazia bera eta lan, ingurumen eta osasun arloko eskubideei zor zaien babesak, inbertitzaileen eta enpresa transnazionalen (ETN) interesak guztien interesen gainetik jartzen baititu.

AEBk eta EBk inbertitzaileak babesteko neurriak sartu nahi dituzte TTIP hitzarmenean. Inbertitzaileen eta Estatuaren arteko ezadostasunik gertatuz gero, gatazka horiek arbitraje bereziko auzitegi pribatu baten bidez ebartzeko lirateke, "inbertitzaileen eta estatuaren arteko gatazkak ebartzeko" klausularen bidez (ingelesez ISDS). Auzitegi horrek eskumena izango luke estatuak atzerriko inbertitzaileei konpentsazio ekonomikoak ematea erabakitzeko, baldin eta inbertitzaileek frogatuko balute estatuak inbertitzaile horien oraingo eta etorkizuneko etekinak murriztea lekarketen neurriak aplikatzen dituztela (esate baterako, ingurumen edo osasun arloko estandarrak igotzea). Kasu horietan Estatuak ezingo luke epaia errekurritu, arbitraje pribatuko erakundearen erabakiak irrimoak eta eztabaiaezinak direlako.

Horrek esan nahi du edozein mailako Administrazio Publikoek, hau da, estatu, autonomia eta udalerrri mailako administrazio publikoek, ahalmen mugatua izango luketela osasun publiko, ingurumen nahiz gizarte eta lan-babes arloetako politikak egiteko, ETNk auzia jarriz gero eman beharko lituzketen kalte-ordain posibleen beldur.

Bestalde, TTIPek erakunde iraunkor baten sorkuntza aurreikusten du, Araugintza Lankidetzarako Erakundearena. Erakunde horrek EBk eta haren estatu kideek (gobernu zentralak eta tokikoak barne) TTIPen kapituluuetako edozeinetan jasotakoari buruz egiten dituzte arautze eta egintza arautzaile guztiak gainbegiratu dituzte, eta modu horretan enpresen lobby-ei aukera emango zaie gaurko zein etorkizuneko legerian zuzenean eragiteko eta legeria hori beren mesedetan aldatzeko.

Araugintza lankidetzak, TTIPen ezartzeko asmoa dagoen moduan, ETNek udalen araugintza-ekimenak auzitan jartzeko ahalmena izatea ekarriko luke (adibidez, Tokiko Agenda 21ean jasotako iraunkortasun irizpideak dituzten industri poligonoen ordenantza arautzaileak egitea). Hau da, horrelako ekimenak onartu ahal izateko kostu-mozkin iragazki bat eta eragin komertzialaren inguruko ebaluazio bat pasa beharko lukete eta, ondorioz, praktikan, kasu gehienak blokeatu egingo lirateke. Eta,

gainera, aurreko gobernuek zerbitzuak pribatizatu badituzte eta pribatizatutako zerbitzu horiek berriz udaleratu nahiko balira, ahalegin horiek praktikan ezinezko gertatuko liriateke.

TTIP hitzarmenak gure bizitzen erabateko merkantilizazioa eta estatuen burujabetza korporazio handien interesetara guztiz makurtzea ekarriko luke.

TTIP hitzarmenak bilatzen duena da zerbitzu publikoak erabat liberalizatzea eta ETNei zerbitzu horiek emateko eta administrazio publikoen ondasun eta zerbitzuak erosi eta lizitzatzeko aukera zabaltzea. Horren ondorioz, zerbitzu eta erosketa publiko guztiak arriskuan jartzen dira, botere maila guztietan, eta toki komunitateak libreki administratzeko eta tokiko industria, enplegua eta ekimenak bultzatzeko hautatutako ordezkarien eskumena galzorian jartzen.

TTIPen inguruko negoziaketek aurrera egiten badute, hitzarmen honek ezartzen duen logikak ekarriko du zerbitzu publikoak suntsiaraztea eta tokiko botereek beren herrien behar sozialak asetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak hornitzeko eta tokiko industria eta enplegua bultzatzeko politikak sustatzeko duten askatasuna galtzea.

AEB eta EBren arteko harreman komertzialen liberalizazio zabalago honek, ulertua dagoen moduan, estandar europar eta estatubatuarrak murriztea lekarke, hau da, kontsumitzaileak, langileak eta ingurumena babesten dituzten arauak murriztea, arau horiek konpainien irabaziei aurrez aurre jartzen baitzaizkie. Horrela, bertan behera geratuko litzateke Europar indarrean dagoen “zuhurtasun printzipioa”, hau da, kontsumitzaile europarren elikadura eta eskubideak arautzen dituen printzipioa.

TTIP hitzarmena onartzeak, Espainiako estatuaren kasuan, estatuko gobernuaren neoliberalismo kontserbadorearen udalerririk desegiteko ofentsiba planifikatua ekarriko luke, zeina Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legea izenekoaren pean oinarritzko hiru helburu hauek lortu nahi baititu:

- Demokrazia eta toki autonomia murriztu.
- Tokiko eskumenak eta zerbitzu publikoak ezabatu.
- Udal zerbitzuak guztiz pribatizatu.

Europako hiri eta herriak jabetzen gara merkantzia eta zerbitzuen merkataritzak herritarren ongizaterako duen garrantziaz. Hala ere, konpetitibitatea eta garapen ekonomikoa ez lukete izan behar TTIP eta tankera horretako (CETA, TISA) merkataritza itunak erabakitzeko irizpide bakarrak. Alderdi ekologiko eta sozialak ere kontuan hartu beharrekoak dira bitariko edo askotariko edozein merkataritza negoziatuz. Garrantzitsua da, halaber, azterketa konparatibo bat egitea, ituna arlo horietan aplikatuz gero sortuko liriatekeen kostuak, batetik, eta itunak ekarriko lituzkeen balizko onurak, bestetik, alderatzeko. Azterketa horrek bere baitan hartu beharko lituzke ez bakarrik eragin ekonomiko potentzialak, baizik eta baita ere TTIPak gizarte, ekonomia, osasun, kultura eta ingurumen arloetan, bai EBn bai AEBn, izango lukeen eragina ere.

EBko erregioetako gobernuek, toki korporazioetakoek eta espainiar estatuko autonomi erkidegokoek eskubidea daukate beraiei eragin diezaieketen gaiei buruz Europa mailan adosten den legediari buruz informatuak izan daitezen, hartara beren iritzia emateko aukera izan dezaten. Alabaina, Europako erregio eta toki korporazioei orain arte ez zaie horrelako eskubiderik eman TTIPen inguruan martxan dauden negoziaketan harira.

Toki Administrazioek,

- herrien beharretatik hurbil daudenez, TTIPekin egiteko asmoa dagoen horretan esku-hartzeko betebeharra daukate, eta erantzun bat ematekoa ere bai, ez badute beren burua herritarrei ez laguntzeaz eta planeta arriskuan jartzeaz akusatua ikusi nahi.
- zerbitzu publikoak eta tokiko industria eta enplegua bultzatzeko baliabide egokiak izanik, horiek bultzatzeko ahalegina egiten dute guztion interesari begira.
- eskubide sozialak, ekonomikoak eta ingurumen arlokoak babesteko betebeharra daukate, eta baita TTIPak Europako legeen bidez gaur egun debekatuta dauden praktikak aplikatuz inposatu nahi dituen exijentzia eta arriskuei aurre egitekoa ere. Horien artean aipatzekoak dira, besteak beste, produktu kimiko eta farmazeutikoen ekoizpena, nahiz eta haien kaltegabetasuna zientifikoki egiaztatua gabe egon, genetikoki eraldatutako elikagaien onarpena, hormonekin tratatutako txahalki eta txerriaren kontsumoa, kloroz esterilizatutako oilaskoa eta fracking teknikaren bidezko gas erauzketa.

Kooperazio taldearen asmoa da eztabaida piztea hitzarmen honen atzean benetan jokoan dagoenari buruz eta hitzarmena ezarriz gero zerbitzu eta erosketa publikoetan izango liratekeen aldaketei buruz.

Esandako hori guztia kontuan hartuta, hau adierazi nahi dugu:

- Merkataritza eta inbertsioa guztion onurarako izango dira, eta ekonomikoki eta sozialki mesedegarri diren elkartrukeak bideratzeko balioko dute, soilik gizakion beharrak errespetatzen badituzte eta espekulatuzaile finantzarioen eta enpresa transnazionalen onuretan bakarrik oinarritzen ez badira. Zerbitzu publikoen ezabaketa programatu eta mailakatu, elkartasunaren eta demokraziaren ezabaketa programatu eta mailakatu ere bada.
- Zerbitzu eta erosketa publikoak kapital pribatuaren kompetentziara erabat irekitzeak kontrako eraginak sortzen ditu zerbitzu publiko horien irisgarritasunari, kalitateari eta kostuari dagokionez.
- Eskubide sozialak eskubide kendu ezinak dira, eta, horrenbestez, ezin dira merkatuaren logikaren mende bakarrik egon.
- Sozialki baliagarriak diren zerbitzu publikoak egoteak bermatzen du bakarrik pertsona guztiok bizi kalitate duina izatea leku guztietan, demokraziaren benetako gauzatzearekin estuki lotuta.
- Kontrol publikoari eutsi egin behar zaio ondasun komunetarako sarbidea eta zerbitzu publiko berrien sorkuntza bermatzeko, eta baita tokiko industriari eta enpleguari laguntzeko ere.

Hori guztia kontuan hartuta, hau proposatzen dugu:

### **MOZIOA**

1. Hernaniko Udalerria TTIPren aurkako eta TTIParekiko intsumiso deklaratzeari, elkartasunerako eta gizarte ondasunen birbanaketarako oinarritzko zerbitzu publikoen defentsan.

2. Estatuako gobernuaren Administrazio Publikoetako Ministerioari hau eskatzea:
  - **Gizartearentzat onuragarri diren zerbitzu publiko** deiturikoen izaera publikoa mantentzeko helburuz egiten diren ekimen guztiak babes ditzala.
  - Bertan behera utz dezala berehala, atzerako eraginarekin, “Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legea”, eta haren ordeztokiko ekonomiaren garapena helburu duen lege berri bat egin dezala.
3. Ekonomia eta Konpetitibitate Ministerioari eskatzea eten daitezela TTIP eta TISAren (zerbitzu publikoak liberalizatzeko eta pribatizatzeko itun multilateral) arteko negoziaketak, eta ez dadila berretsi CETA ituna (Kanada eta EBren arteko merkataritza librerako ituna).
4. Era berean, Ekonomia eta Konpetitibitate Ministerioari beste hau eskatzea:
  - Ez dadila ISDS motako xedapenik sartu etorkizunean egiten diren merkataritza edo inbertsioko hitzarmenetan, eta orain indarrean daudenetatik ezaba daitezela.
  - Gauza bera zerbitzu publikoei eta jabetza intelektualari buruzko xedapenetarako.
  - EBko edo haren estatu kideetako gizarte, lan, osasun, ingurumen edo beste edozein gaien inguruko prozesu arautzaileetan ETNek parte-hartze zuzena edo zeharkakoa (edozein erakunde edo lobby-ren bitartez) izan dezatela saihestea. Ente arautzaile publikoek posibleko dute, edozein kasutan, gizarte zibileko erakunde demokratikoekin kontsulta ez diskriminatzaileak egin.
5. Espainiako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta Diputatuen Kongresuko eta Europako Parlamentuko talde parlamentario guztiei erabaki honen berri ematea, erregistratua eta jasota gera dadin.

Hernanin, 2016eko otsailaren 17an.

Kooperazio taldea herriko beste hainbat talderen atxikipenekin (Amher SOS Arrazakeria, Kaleratzeak Stop, Urrunegi, Berdintasun Kontseilua, Bilgune Feminista, CCOO, LAB eta ELA sindikatuak)

